



ainguruak

PIZTIA ZAURITUAK

Babesgune guztiak erre ditut
eta ni baino ez nago orain errautsetan.

Begiratu, hiltzen doa dena
gure hatzen artean.

Agur bat da agian
agur ez esate hau:
elkarri so,
elkar agortzen ikustea.

Baso baten modura
ito arte trinkotzen,
adarretan adar, dena itzal,
geure buruen ehiztari.

Eta badator sutea
ilun zena argitzen,
piztia zauritu bat
beste piztia bat zauritzen.

Babesgune denak erre dituzu
eta zu baino ez zaude orain.

Kontra itzuli zaigu
aldeko haizea:
bueltan datoz
jaurtitako geziak.

Baso baten modura
ito arte trinkotzen,
adarretan adar, dena itzal,
geure buruen ehiztari.

Eta badator sutea
ilun zena argitzen,
piztia zauritu bat
beste piztia bat zauritzen.

Eta badator sutea
ez al duzu aditzen
piztia zauritu bat
bere zauriak berpizten?

BESTIAS HERIDAS

Yo mismo quemé todos mis refugios
y ahora solo quedo yo entre las cenizas.

Mira, todo se va muriendo
entre nuestros dedos.

Quizá no decirse adiós
solo sea una manera más de despedirse:
mirarnos el uno al otro,
y vernos desaparecer.

Como un bosque,
cerrándose hasta ahogarse,
rama sobre rama, todo sombras,
cazándonos a nosotros mismos.

Y llega el incendio
e ilumina lo que permanecía oscuro:
una bestia herida
hiriendo a otra bestia.

Tú también quemaste todos tus refugios
y ahora solo quedas tú entre las cenizas.

El viento a favor
se nos ha vuelto en contra:
han vuelto hacia nosotros
las flechas que lanzamos.

Como un bosque,
cerrándose hasta ahogarse,
rama sobre rama, todo sombras,
cazándonos a nosotros mismos.

Y llega el incendio
e ilumina lo que permanecía oscuro:
una bestia herida
hiriendo a otra bestia.

Y ya llega el incendio,
¿es que no lo ves?,
cómo una bestia herida
reaviva sus heridas.